

## ARIKETAK

### 1 Zer esan nahi du?

- Lo bat egin dut bart.
  - Bart ezin izan du lo-kuluxka bat baino egin.
  - Hurrek ez diote lorik egiten utzi.
  - Bart esnatu eta esnatu ibili da.
  - Gau osoan ez da behin ere esnatu.
- Hau da lo-gosea daukadana!
  - Ezin du lo baino egin.
  - Lo eta lo egiteko gogoa dauka.
  - Aspaldian ez du lo ondo egiten.
  - Lotan harrapatzen dute bazter guztietan.
- Etorri zaitzez altzora, igurtzi egin behar zaitut-eta.
  - Lepoan hartu du, nekatuta dago-eta.
  - Ondora ekarri du, zaplasteko bat emateko.
  - Magalean hartu du, laztandu egin nahi du-eta.
  - Arrelepo hartu du, min egin du-eta.
- Ez ibili angulatan!
  - Ez sartu atzamarrik sudurrean!
  - Ur-putzu guztietan ez sartu!
  - Praka barrenak ez busti!
  - Moko-kandelak kendu!
- Zopa hau hestegorria erretzeko modukoa dago.
  - Zopak piper-min gehiegi dauka.
  - Zopa beroegi dago.
  - Zopak gatza du larregi.
  - Zopa jan ezineko modukoa dago: txarra.
- Kremailera kateatu zait.
  - Kremailera apurtu zaio.
  - Kremailera lotu ezinik dabil.
  - Kremailera ezin du jeitsi.
  - Kremailera ez gora ez behera gelditu zaio.
- Piperraldia izan du.
  - Negar asko egin du.
  - Gelditu ezinik ibili da.
  - Kasketaldia izan du.
  - Ez du esan bat ere egin.
- Esan txarrekoa halakoa!
  - Ez du obeditu.
  - Berba txar asko esaten ditu.
  - Oraindik ez du ikasi ongi hitz egiten.
  - Amari ez dio garaiz esan.
- Bihotzerrea daukat.
  - Maiteminez dago.
  - Janak ez dio mesederik egin.
  - Min dauka paparrean.
  - Oso haserre dago.
- Eztarria zarratuta daukat.
  - Ezin du ezer jan.
  - Ezin du ezer edan.
  - Ez dauka bozik.
  - Ezin du ahoa guztiz zabaldu.

# A R I K E T A K

## 2 Parekatu esanahi bera dutenak. Lehenengoa guk egin dugu:

- |  |                          |                                |
|--|--------------------------|--------------------------------|
| 1. Ez ibili gero putzuei begiak ateratzen!             | <input type="checkbox"/> | Okerreko zuloatik joan.        |
| 2. Eman pedalaril!                                     | <input type="checkbox"/> | Zazkarra, astakiloa...         |
| 3. Harrapaketan egingo dugu.                           | <input type="checkbox"/> | Zaplatekoa, belarri ondokoa... |
| 4. Piperraldi asko izaten ditu azken aldian.           | <input type="checkbox"/> | Kasketaldiak.                  |
| 5. Neguan ere mahuka hutsik ibiltzen da mutiko hori.   | <input type="checkbox"/> | 1 Ez ibili plisti-plasta!      |
| 6. Ito naiz ia! Kontrako eztairik joan ez zait ba!     | <input type="checkbox"/> | Beso gorri ibili.              |
| 7. Halako anabasa dago zure gelan!                     | <input type="checkbox"/> | Sakatu pedalaril!              |
| 8. Zelako kirtena zaren!                               | <input type="checkbox"/> | Azkenga ibili.                 |
| 9. Luzatu ederra hartu du zure ume horrek uda honetan. | <input type="checkbox"/> | Lorrina, nahaste borrostea.    |
| 10. Kokoteko galanta irabazten ari zara!               | <input type="checkbox"/> | Kankailua hazi.                |

## 3 Hutsuneak bete hitz hauek erabilita:

Mingainari haginka, atzekoz aurrera, egingo (dugu) futbolean, negar zotinka, harri eta horma, oskolik, hotzak dardar, ipurdiko galanta, kukulumixo, gomitularril.

1. Aste guztia ikasi eta ikasi eman du eta hor daukazu orain \_\_\_\_\_ lo.
2. Nik ere atzo, laban eginda, \_\_\_\_\_ hartu nuen.
3. Bazkaritan zerbaitek kalte-edo egin dit, ze \_\_\_\_\_ naiz.
4. Orainxe ari gara pardela kentzen eta ia-ia ikasi du \_\_\_\_\_ jarri eta txiza egiten.
5. Jaten ari zen lasa-lasai eta bat-batean negar batean hasi da, nik uste dut \_\_\_\_\_ egin diola.
6. Gaixorik dago, seguru, ze 27 gradotik gora egiten ditu kanpoan eta horrela ezin da pertsona \_\_\_\_\_ egon.
7. Bai, polita da niki hori, baina ez dakit ez ote duzun \_\_\_\_\_ jantzi.
8. Egun osoa pasatzen dut \_\_\_\_\_ ez jateko esaten.
9. Hartu baloia eta \_\_\_\_\_ dugu \_\_\_\_\_?
10. Erreka bazterrean jausi eta min egin zuen nonbait, ze han etorri zitzaigun \_\_\_\_\_.

**Egitarauak**

Hona herri bateko festetako egitarau bat. Saia zaituz zuzentzen zuzendu beharreko guztia: data, orduak, fonetismoak, erdarakadak... Gisa berean, formatoan ere nahi adinako aldaketa egin daitezke.

**ALTZIBAR**  
**2004.ko FESTAK**

**Otubriek, 9 Baridsekuu**

Goizeko 12,30etan: Suziria, festei hasiera  
 Emateko.

Eguerdiko ordu 1ean: Otamena, plazan.

Eguerdiko ordu bietan: Bazkari herrikoa.

Arratsaldeko 5etan: Puzgarriak haurrentzat.

Iluntzeko 7etan: bertso poteoa.

Gaueko 10etatik aurrera: Dantzaldia, *Orro*  
 taldearekin.

Goizeko 4tan: Txokolatada, plazan.

**Otubriek, 10 Dombekii**

Goizeko 10:30etan: Meza nagusia.

Goizeko 11:30etan: Hamaiketako herrikoa.

Ordu bietan: Bertsolariak, plazan.

Arratsaldeko 5etan: Pilota partidak.

Iluntzeko 7etan: Dantzaldia, *Orro* taldearekin.

Gaueko 10etan: Sesensuskoa eta festen  
 amaiera.

# SOLUZIOAK

## 1 ZUZENKETA

- |      |       |
|------|-------|
| 1. d | 6. d  |
| 2. b | 7. c  |
| 3. c | 8. a  |
| 4. a | 9. b  |
| 5. b | 10. c |

## 2 Parekatu esanahi bera dutenak:

- |                            |                                  |
|----------------------------|----------------------------------|
| 1. Ez ibili plistiplastal! | 6. Okerreko zulotik joan.        |
| 2. Sakatu pedalaril!       | 7. Lorrina, nahasteborrastea.    |
| 3. Azkenga ibili.          | 8. Zazkarrak, astakiloa...       |
| 4. Kasketaldiak.           | 9. Kankailua hazi.               |
| 5. Beso gorri ibili.       | 10. Zaplatekoa, belarri ondokoa. |

## 3 Hutsuneak bete hitz hauek erabilita:

- |                       |                             |
|-----------------------|-----------------------------|
| 1. Harri eta horma    | 6. Hotzak dardar            |
| 2. Ipurdiko galanta   | 7. Atzekoz aurrera          |
| 3. Gomitularri        | 8. Oskolik                  |
| 4. Kukulumixo         | 9. Egingo (dugu) futboleant |
| 5. Mingainari haginka | 10. Negar zotinka           |

## 4 Egitarauak

### ALTZIBAR 2004ko FESTAK

#### URRIAREN 9A, BARIKUA

- 12:30ean:** Suziria, festei hasiera emateko.
- 13:00etan:** Otamena, plazan.
- 14:00etan:** Herri bazkaria.
- 17:00etan:** Puzgarriak haurrentzat.
- 19:00etan:** Bertso poteoa.
- 22:00etan:** Dantzaldia, *Orro* taldearekin.
- 04:00etan:** Txokolate jatea, plazan.

#### URRIAREN 10A, DOMEKA

- 10:30ean:** Meza nagusia.
- 11:30ean:** Herri hamaiketakoa.
- 14:00etan:** Bertsolariak, plazan.
- 17:00etan:** Pilota partidak.
- 19:00etan:** Dantzaldia, *Orro* taldearekin.
- 22:00etan:** Zezensuzkoa eta festen amaiera.